

Aldudarrak eta Erratzuarrak


■ Aspaldiko kontuak

Herri Kiroletan eta batez ere pilota jokoan, zaharrenetakoa hain segun «LAXOA» dugu. Bazta Erreka eskualdean josteta nagusia eta arrakasta haundikoa. Noiztik datorren «LAXOA» ziur eztagigu, baiña aspaldika dela bai.

Baztan alde huntan eta mendi zelaian non-nahi aurkitzen ditugu «pilota-soro» deitzen diren zelai-guneak, artazinak soro hoietan pilotan aritzen zirenak. Desafiozko partidak ere jokatu izan dira joan zen mendean eta bai mende hunes astapenean ere, aldudar eta baztandarren artean ontzako urreak ere jokoan zabilatzatela. Baztan-Erreka pilotarien artean ere zer nolako gudukaldiak egiten ote zituzten. Garai hartan ez zen Txapelketarik izaten, orduan ez zen hoirrelako gauzarik, Txapelketa lehiaketa berria dugu, oraiko antolakuntza berria. Erran dezagun ere, desafiozko partida hoiak mugiarazten zutela jendea, beti izaten baitziren pilotari hoberenen arteko gudukaldiak.

Onen arteko guduak partida onak izaten ziren jain segur, baina pilotari xumeen artekoak ere ez ziren txarrak eta baziren desafiozkoak eta aski interesgarriak. Adiskide batek erranik aipa dezadan aspaldiko denboretako gertakizun bat.

Erratzuko Gorostapolo hau-zoko plazan bazuten desafiozko partida bat antolatua, erratzuarrak aldudarren kontra. Aldudar pilotariak etorri ziren Gorostapolora eta hantze erratzuarran ere heken zain. Jendea ere bildu omen zen. Partida jokatu aintzin



aldudarrak nahi omen zuten lehenik joaldi batzuk egin plaza ezagutzeko. Hasi omen ziren sakeak eta erreferak egiten eta holaxe joaldi batzuk osatu zituzten.

Erratzuko pilotariak ikusi zutenean aldudarren jokatzeko molde eta hoken joaldi biziak, izutu ziren eta ez zuten partidik jokatu nahi, aisa galduko zuterla eta desafioa urratu zuten. Eztabaida franko izan omen zituzten, sekulako kalapitan eta aserre, baina dudarik gabe lehenagotik ezaipizuten seinalerik bota, beti ere desafiozko partida desegin zen. Aldudarrak kolera gorrian itzuli ziren beren herrira eta bideak zoatzilarik, aurkitu zituzten urretze meta gziak errekanm behiti bota omen zituzten eta holaxe akitu ziren egun hartako espanta guziak.

Gertakari bitxiak lehenagoko historio zaharrak.

M. Izeta.

Naparroa'n loratutako olerkari bizkaitarra

Euskera maite eta euskera landu dutenen artean anitz ezaguna da, gaur goraiatu nai dutan «poeta» edo olerkari bikain au.

Ez, ainbeste, Naparroa'n. Bizkaitarra bait zen bera. Mingarria da, bañan euskaldunok, soilki gure esparruko euskera bakarrari loturik aurkitzen gara. Erdiko euskera egiten dugunotatik, ots, Gipuzkoa-ta-Naparroa'ko euskera egiten dugunotatik, geienek ez dute Bizkaierazko edo Zuberorazko olerkari, idazle edo bertsolarietaburuz ezertxo ere ezagut-zen.

Eusko Jaurilaritzak du mixeablekeri galant orren erru guztia. Bai beintzet erru ikaragarri orren zatirik aundiena. Egun batean kontatu nai nizueke, EUSKERAZAINTZAK Eusko-Jaurilaritzari aurkeztu zion egitarau edo programa zer-nolako izen zen. Garaikoetxea zen orduan Lendakari, eta Labayen bere kultur-ministroa. Esango dizuet, adiskide nuan Labayen, orri, euskaldun guztiek lau euskalkiak aixe ikasi aal zezazketen, nik neronek begien aurrean jarri nion jokabide erreztasegiña. Manu Oñatibia, Jexux Elozegi Euskerazaintzaren idazkaria eta Lino Akesolo Euskerazaintzaren Lendakaria, uste dut, egon zirala nerekin billera artan.

Utzi dezadan, ordea, ori guztia beste egun baterako, eta itzuli nedin asirik utzi dutan ildora.

Felipe Arrese Beitia da gaur goraiatu nai nuken olerkaria. Bizkaitar'ko Otxandiano'n jaio zen, 1841'garren urteko orrillaren (mayatzaren) 25'ean. Bañan, naiz bizkaitarra izen eta beti bizkaieraz bakarrik idatzi, Naparroa'rekin aski loturik agertzen zaigun gizona da. Alde batetik, olerkari bezala Naparroa'n jaio zelako, eta bestetik bere adiskiderik onena eta ats-emailerik aundiena napar bat izen zuelako: Arturo Kanpion aintzuzen.

Orra or bi gizon aundi: Felipe Arrese; Arturo Kanpion. Arrese, Bizkaitar'ko izen duen olerkaririk aundiena izen zen. Bera beñio aundia-gorik ez dut bat besterik ezagutzen: Lauaxeta. Kanpion,



Felipe Arrese-
Anjela Bengoa
senar-emazteak.

Naparroa'k izen duen idazlerik aundiena da. Bera beñio aundia-gorik ez dut iñor ezagutzen.

Bizkaitar guztiek irakurri bear lituzteke - eta buruz ikasi - Felipe Arrese'ren olerkiak. Napar guztiek irakurri bear lituzteke Arturo Kanpion'en liburuak - eta liburu oietako zatirik ederrenak buruz ikasi -.

Naparroa'tik at eta Euskalerriguztirik kanpo ere gizon aundia dugu benetan gure Kanpion maitagarría. «El mejor narrador de la lengua castellana» zela Kanpion, esan zuen bera ere idazle bikaña zen Pardo Ba-zan nobelistak.

Arrese, olerkari bezala Naparroa'n jaio zela, esan dut. Elizondo'n aintzuzen: An, 1880'ean ospatu ziren euskal-jaietan. Ikus, jai aietan aurkeztu zuen olerkia. «AMA

EUSKERARI AZKEN AGURRA» ipiñi zion olerki orri izen-buru. Ona bere aurreneko bertsoak:

«Ill da euskerea! ill da euskerea! Betiko itxi dauz begiak... Negar Araba. Negar Gipuzkoa. Negar egin bei Bizkaia... Negar, naparrak, gure anaiak, ta'esukaldun Frantziakoak. Neugaz batera danok urratu sentimentuz soñekoak; Eta gñun dozuz, zeruko arbola zuk zeure jantzi orlegiak? zure adarrak billots dakustaz, igar, ta ezkur bageak. Ai! Mingarria! Gaztela'ko arrak jan dautsuz sustrai guztiak; baita biotza, baita barruak, azal azur ta mamiak».

Latiegi'tar Bixente

Berri ona

Tentazioak

«Jaingoikoaren Seme baldin bazera...»
(Lk. 4, 1-11)

ERABAKIAK artu bear direnean gizakia ez da bere onean egoten. Etorkizun erakargarria eskaintzen zaio Jesus-i. Etorkizun eder ori, ordea, otsegiten eta erakusten duen moralarekin eta erlijioarekin ez dator bat.

Egun ere tentazioak latzak dira. Jainkoaren Itzak baiño indar eta erakarpen aundiagoak dituzte tentazioak.

Gaurko ebanjelioan agertzen zaigun Jesus-ek gizaki itxura osoa du. Eta orrek gure barruko eta buruko eskema eta pentsa- molde asko deustatzen ditu.

Gose denak janaria du amets. Askori, ordea, ukatu egiten zaie jatea eta edatea. Gutxi batzuk dute orren errua. Ez dago gure artean solidaritzarik.

Solidaritza gauzatu nai dugunean ekonomiaren eta diruaren esiekin topatzen gera. Ez da naikoa itzez solidaritza agertzea. Solidaritzak itzak eta ekintzak bear ditu. Errukigarritzat jotzen ditugu gosez iltzen direnak; zer egin dugu, ordea, eriotza oiek gerta ez daitezen?

Lurralde pobreek sortzen dute munduko aberastasunaren %82a. Jakin ezazu, adiskide, aberastasun ortatik %32a bakarrik aprobetxatzen dutela.

Agintearen tentazioa ere ez da ttikia gure artean. Atsegiña gertatzen zaigu agintzea... besteen gaitetik ibiltzea...

Erriaren botoak ez dira erriaren kontura nai dena egiteko edota, erriarren konfidantza aprobetxatuz patrikak gizontzeko. Erriak ez dio iñori ustelkeriaz baliatzeko agindu eta baimenik eman.

Politikoak eta beste eratako agintea dutenak errespetatuak izatea nai baldin badute... ager dezatela erriarekiko errespetoa eta begirunea.

Sinistgabea izatea ere tentazioa da. Eta tentazio larria. Erlijio gaiak ez dira aintzakotzat artzen. Federik gabe bizi daiteke. Azken norabideak ez du sortzen kezkarik. Ez ote naikoa gogoko zaidana billatzea?

Jaungoikoa alferrikako zerbait gertatzen denean, maitasuna eta doaintasuna galtzen dira, misterioa eta sakontasuna kanporatzen dira. Jainkoak ez du tokirik guregan. Jainkorik gabe bizi daitekela konturatzan geranean, nola baloratzen dugu eriotza? Zer balio du bizitzak? Eta gizakiak? Eta geroak? Eta munduak?

Basamortua tentazio tokia da. Eta mundua ez ote basamortua? Gauza asko ta ederrak eskaintzen zaizkigu, zer nolako arrera egiten diegu? Azalkeiaz eta losintzaz beterik agertzen eta eskaintzen zaizkigun gauza guztiekin ezkondurik bizi al gera?

Artzalluz'tar Joxemari

Koldo Viñuales euskal ezitzallea

Gure egaztietan azkarrena, tin-koena, arranoa dugu; begia erne, burua argi, egalak eratuak. Era berdiñean, lanerako gizon azkarra daukagu Koldo Viñuales-Gale, Erronkari'tar irakasle guztiz ona. Gaiñera euskalduna dugu, Lizarra'ko ikastolaren zuzendaria, ezitzalle arrigarria.

Lizarra'ko ikastolan irakasle bezala, 1983'garren urtean asi zen lanean. Ikastolaren zuzendaritza 1985'garren urtean lortu zuen. Asieratik irakaskintzaren malla jasotzen alegindu zitzaizen. Ikasleen gurasoak, ikastolako ekintzetan bildu zituen, gero ta geiago. Lizarra iriko ekintzetan ikastola ongi sartua dago; Eguerritan, Olentzero ateratzian, Iñauterietan, erriko jaietan, elizbilladietan, goizeko saldak zabaltzen igande goizetan Santiago enprantzan eta abar. Argi ibiliz gauza bat lortu du: Lizarra'ko aurretatik irutik bat ikastolako bidea artzea. Ikastola ez dago bazter batean ezarria eukitzeko, Lizarra'ko nortasunaren zati berexia izateko daukagu egiña. Ori dena Koldo Viñuales zuzendariaren lana da. Gaur Lizarra'ko ikastolak 630 ikasle ditu, Nafarroa'n aundienetako bat.

Lizarra'ko ikastolak itzal aundia dauka gaiñera, ez Nafarroa'n bakarrik, baita Euskaerri osoan ere. Emen darabilzkite toki aunitzetako eziketa ereduak; euskal gayak, erriko arremanen aztarnak, matematikas, izadia, sendikuntza, eta batez ere «EUSKARAZ BIZI» delako aurren ekintza. Euskalerrri osotik da-



Koldo Viñuales irakaslea.

tozkie anderñekoak langaien billa.

Gaur Nafarro osoan, ikastoletan, ezitzalle buru bezala, bi izar aundi ditugu: bat Koldo Viñuales Lizarra'ko ikastolan, bertzea Josu Gorostidi Lekeitio'tarra Paz de Ziganda Iruña'ko ikastolaren zuzendaria.

Koldo Viñuales ez da bakarrik ezitzallea, baita goi-mallako kultur asmatzallea ere. Euskal kultura, orain artio, bi zatitan eratua agertu zaigula, berak dio; itsas aldean urdin margoj jantzia eta mendi aldekoa orlegiz margotua. Orain, euskal kulturarentzat, Lizarra'ko ikastolaren zuzendaria muga berri baten billa dabil; lurralde oriak deitzen ditu, mendialdetik Erriberaño dijoaztenak, Nafarroa'n eta Araban arkitzen direnak.

Ez ditu bakarrik itzak, ekintzak ere bere aldetik dauzka. Erriberako errietik aunitzetan datorzkie aol-

kuñ billa, batez ere ikastola berriak irakitzeko. Ortzen dago Lodosako eredu. Gurasoren bat artuta, antxen dijoakie erantzunarekin.

Nor dugu Koldo Viñuales? 1951'garren urtean jaio zen Erronkari errian, TXANPLA etxean. Balmasedan (Bizkaia), klaretiarrekin egon zen. Goi-mallako ikastetxean, filosofia egin zuen Deusto'n. Bertan euskara ikasten ibilli zen. Euskaltzaindiko txartela,edo agiria eman zioten gure izkuntza irakas-teko. Aurreneko lana Azkarza'ko (Bizkaia) ikastolan arkitu zuen, arduradun bezala. Orren ondotik Lizarrara joan zen, gaur artio. Emaztea Lizarra'tarra du.

Gure Erronkari'tar au Nafarroa'ko euskararen muga berriak jorratzen dabilkigu, gure izkuntzaren lur oriak.

Latzaga